

46/2024 EBAZPENA, AZAROAREN 12KOA, BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIARENA, 2024AN HIZKUNTZA PAISAIA ETA INGURUNE DIGITALA EUSKARATZEKO DIRULAGUNTZA ESKAERA EGIN DUTEN ERAGILEEI ORDAINTZEARI BURUZKOA.

Batzorde Erabakitzaileak 2024ko urtarrilaren 31n egindako bileran, Bortziriako establezimenduetan hizkuntza paisaia eta inguru digitala euskaratzeko dirulaguntza emateko deialdia onartu zuen.

Teknikariaren 2024ko azaroaren 11ko txostena ikusirik, eskaera bakarra izan da, eta eskatutako dokumentuak epearen barrenean aurkeztu ditu.

Aipatzen den dirulaguntza deialdiaren 5. oinarrian zehazten dira dirulaguntzaren ezaugarriak eta zenbatekoak: *“Eskaera guztiak batu eta mankomunitatearen 2024ko aurrekontuetan kontzeptu honetarako aurreikusi den diru esleipena gainditzen badute, diru esleipen hori eskatzaile guztien artean banatuko da, eta lehentasuna emanen zaie euskara hutsean sortutako gastuei. Horretarako, 2.000 €-ko aurrekontua dago.”*

Honela banatuko da kopuru hori:

Diruz lagunduko direnak	Euskara hutsean	Euskaraz eta bertze hizkuntza batzuetan
<i>Errotulazioa</i>	%50 500 € gehienez	%0
<i>Irudi korporatiboa</i>	%50 120 € gehienez	%25 60 € gehienez
<i>Ingurune digitala</i>	%50 350 € gehienez	%50 250 € gehienez
<i>.eus domeinua</i>	%100 30€ gehienez	%100 30€ gehienez

Deialdi honetara aurkeztu den eskatzaileak, Xulufraia jantzi denda, honako gastuak egin eta justifikatu ditu: errotulu nagusia euskaraz paratzeagatik, 630,70 euroko gastua, ondorioz, 315,35 euro dagozkio (gastuaren % 50).

Hortaz, 315,35 euroko gastua egitea dagokio mankomunitateari eta 2024ko aurrekontuan badago nahikoa krediturik gastu horri aurre egiteko.

Horiek guztiak kontuan hartuta, **EBATZI DUT:**

- 1) Eskatzaileari dirulaguntza ordaintzea:
 - Xulufraia jantzi denda – Arantxa Zubieta Otxoteko (sarrera zkia: 151): 315,35 euro.
- 2) Eskatzaileei ebazpen honen berri ematea.

Eta behar den lekuan hala ager dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, hauxe sinatu dut, sinadura digitalean agertzen den datan.

LEHENDAKARIAK
Leire Mitxelena Gamio

ZIURTATZEN DU, IDAZKARIAK
Nagore Madariaga Iriarte